

BERRIGARA

34. zenbakia

JARDUN ELKARTEA, Bergara

1993, otsailak 5

UDAL
IRRATIA
JARTZEKO
AUKERAK
AZTERTZEN ARI
DA UDALA

SAN
BLASAK
MUIONDO
AUZOAN
ASTEBUKAERAN

KIROLAK

ETXANIZ ETA
ZEZEAGA
BINAKAKO
TXAPELAREN
BILA



AGUSTIN ARANZABAI
ETORKIZUNEKO REALEAN

zipristin
zipristin
zipristin

Haur eta Gazteentzat
oinetako denda

barria

Espaloia, 8
Bergara

Hazten ari diren oinek eskatutako kalitatea

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, ZUBIZARRETA, ZULUETA,
ESTEFANO, LABORRA eta RUIZ DK.ak

- Azterketa ginekologiko osoak
- Minbiziaren aurretiko diagnostikoa
- Hauraldiaren kontrola
- Txekeoak
- Bularreko gaitzen unitatea
- Mamografiak
- Antzutasuna
- Antisorkuntza
- Menopausiaren tratamendua
- Dietak
- Sudurra, eztarria, belarria
- Analisi klinikoak

**GUZTI HAU
ARRASATEN
BERTAN,
URRUTIRAGO
JOAN GABE!!**



Zerkaosketa, 17 etxabea.
ARRASATE. Tfnoa: 79 20 18

PESA

BERGARA ☎ 76 16 46
ARRASATE ☎ 79 14 19

Datorren ostegunean, otsailak 11,
etor zaitez gurekin **LOURDESERA**, zure
eguna da!!

Irteera Arrasate eta Bergaratik
eguneko joan etorriko zerbitzuan

BERRIGARA

Argitaratzailea:

Jardun Elkartea
Errotalde Jauregia, 20.570
Bergara

Tfnoa eta Faxa: 76 03 97

Babeslea: Bergarako Udala

Laguntzailea:

Eusko Jaurlaritzza

Erredakzioa

Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil
eta Mikel Elkorobereizbar

Maketazioa:

Eneko Azkarate eta Eduardo
Mendibil

Publizitatea eta harpidetzak:

Alex Azkarate eta Edurne
Arenaza. ☎ 76 03 97

Erredakzio-kontseilua:

Iñaki Eraña, Gorka Elorza eta
Alex Labaien

Kolaboratzaileak: Jose Angel Mikeo, Estepan Plazaola, Miguel Angel Elkorobereizbar, J. M. Elexpuru, J. Oregi, A. Urzelai, Maripi Laskurain, N. Alzelai, Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, M. Lizarralde, Monika Belastegi, Aitziber Aretxaga, Ainhoa Bikuña, Asier Madinabeitia, Josune Inarra eta A. M. Goenaga.

Argazki laborategia:

B. Cantero, M. Leturia, J.A. Eguren, J.I. Millan, J. Aguayo, J. Garzia, D. Santos, P. Retolaza, Kiñu eta Pol-Pol Mendizale Taldea.

Komikia eta marrazkiak: Josu Okina eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)
Banaketa : Txantxangorri Taldea

Copyright:


BERRIGARA

Tirada: 3.300 ale

Lege gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain hartzen adizkarian adierazitako esanena eta eritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo sailaren laguntza jaso du


PROTAGONISTAK

SAN BLAS OPILAK

Aspaldiko ohiturari ertsiz, asteazkenean, San Blas egunean, San Blas opilak bedeinkatu ziren herriko hainbat elizatan.

San Blas Armeniako Sebaste hirian jaio zen 316. urtean eta apaltasun haundikoa omen zen. Sendagilea izanik, Sebasteko gotzaia hil zenean kristauak berau aukeratu zuten beren gotzai izateko.

Linizio Erromako enperadoreak kristauak akabatzen bialdu zuen lurralde haietara. Agrikoalus eta honek San Blas zigortzeko eta hiltzeko agindu zuen ez baitzuen onartu "gezurrezko jainkoei"



opariak egitea.

Badirudi XVIII. mendetik hona dagoela San Blasen omenezko opilak egin eta bedeinkatzeko ohitura.

Horrela, bada, aurtan ere anis usaina nabari zen herriko hainbat okindegi eta gozotegitan.

Asteazkenean bedeinkatu ziren hainbat elizatan

ITURRI ONETIK

Eroski obretan 15 egunez

Eroski supermerkatua 15 bat egunez itxiko da laister bertan hainbat lan egin ahal izateko. Bertako arduradunek lokala zaharra geratu dela uste dute eta hainbat berriztatze lan burutzeaz gain, lokala bera haunditu eta arraindegi bat egingo da bertan.

Printzipioz lanak aste honetan bertan hasteko baziren ere, zertxobait atzeratu dira eta oraindik noiz hasiko diren jakiterik ez dago.

ESAN DUTE

"Lau urte bete dira jadanik, Izkara selekzionatzailea lanean ekin zenetik eta, aspektu teknikoari dagokienez, ez dugu ezertan nabaritu bere eskua".

IÑIGO IGARTUA

Ziklo-Kroseko txirrindularia
EUSKADI IRRATIA

"Niregana zetorrela ere pentsatu izan nuen, eta Muguruza jo izan ez balu, ni harrapatuko nindukeen".

JOSE LUIS ELKORO

HBko Mahai Nazionalekoa
EGUNKARIA

"Politikoeak asko ikasi beharko lukete Elkarri-rengatik. Hasteko, elkarrizketaren kultura ikasi behar lukete, agintearen kultura besterik ez baitute".

EUSEBIO OSA

Irakaslea
EGUNKARIA

Atsedeen zentrua

LOKARTU

Koltxoi-Denda

Bideberri z/g. ☎ 76 05 01

MAKAILO

Makailau kazuelak gertatzen ditugu

Ibargarai 15

EZPELETA

etxea

Harizko eta kotoizko goimailako izara eta mantelak

Barrenkale 44 BERGARA

**INDOCHINA**

Ostirala: 22.30.


Larunbata: 17.00., 19.30 eta 22.30.

Igandea: 16.45., 19.30. eta 22.15.

Astelehena: 19.30.

**DOC HOLLYWOOD**

Igandea: 11.30.

**BIZKAIKO GOLKOA**

Osteguna: 19.30.

Zinea

▼▼ Oskarren atarian frantziar filme honek atzerritar filme onenaren Urrezko Globoa lortu berri du Estatu Batuetan. **Catherine Deneuve** aktorearen presentziak izugarritzko indarra ematen dio 1930ean Frantziaren menpe zegoen Indochinan girotutako filme honi.

▼▼ **Michael J. Fox** aktore ezaguna dugu komedia honetako protagonista nagusia. Mediku xeble honek buruhauste bat baino gehiago emango die bere gaisoei.

▼▼ 15 urte kanpoan igaro ondoren bere bizitzari berrekiteanahi duen kazetari bat (**Omero Antonutti**) Bilbora itzuli eta emakume bat ezagutuko du (**Silvia Munt**). Baina hainbat gertakarik erlazio hori kolokan jarriko dute...

Erakusketak

▼ **Pintura erakusketa.** Jose Antonio Borobiaren "Caretos" izeneko margo erakusketa Nahikarin.

▼ **Argazki erakusketa.** Javier Areitio eta Pedro Martinek herriko kultur eta kirol taldeen argazkiak ikusgai dituzte Kultur Etxean igandera arte.

Deiak

▼ **Herri Batasunak** dei egiten du larunbat arratsaldean Bilbon egingo den pakearen aldeko manifestazioan parte hartzeko

Farmaziak

- ▼ **Larunbata 6:** Guallar
- ▼ **Igandea 7:** Guallar
- ▼ **Astelehena 8:** Estella
- ▼ **Asteartea 9:** Mozos
- ▼ **Asteazkena 10:** Camacho
- ▼ **Osteguna 11:** Puy
- ▼ **Ostirala 12:** Guallar

Ogia

▼ **Igandea 7:** Ogizun.

LXLIKUN**BEREZITASUNAK**Fraiskoziuri 6, ☎ 76 51 62
BERGARA**HARATEGIA****ANTIA****URDAITEGIA**Txahal, idi, txerri, bildots,
untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi, Tfnoa: 76 15 09

Pepelu**Ileapaindegia**

Zurradero 2, Behea.

Tfnoa: 76 43 07


Ikuskizunak

▼ **Erromeria** Iosu eta Iokin soinu-joleekin San Blas auzoan osatiralean, hilak 5, arratsaldeko 8 erdietan.

▼ **Mendiko Txirrindu Ibilaldia** igandean, hilak 7, eguerdiko 12etan. 14 urtera artekoek zirkuituari bira bat (5 km.) eta hortik gorakoek 3 eman behar dizkiote.

Aukeran

▼▼ **Neskarriadak** antzerki taldeak "El angel caído" izeneko lana anteztuko du igandean arratsaldeko 7etan Zabalotegiko aretoan. Lana Cristina Peri Rossi-ren izen bereko ipuinean eta Mario Benedetti-ren nobela batean oinarrituta dago. Antezleen artean, Virginia Imaz, Lorea Alberdi edota Leyre Madariaga.



Kirolak

▼ Futbola:

- **Bergara-Urola** (2. mailako Regionala). **Larunbatean** 15.45etan Agorrosinen.
- **Bergara-Lasalle** (Lehen mailako Jubenilak). **Larunbatean** 17.30etan Ipintzan.
- **Bergara-Elgoibar** (Lehen mailako Kadeteak). **Larunbatean** 11.00etan Ipintzan.
- **Bergara-Almen** (Infantil Txikiak). **Igandean** 10.00etan Ipintzan.

▼ Eskubaloia:

- **Bergara-Loiola** (kadete neskak), **larunbatean** 18.30etan.

▼ Saskibaloia:

- **Bergara-Laskorain** (Kadete neskak). **Igandean** 10.30etan.
- **Bergara-Jarrilleros** (Senior neskak). **Igandean** 12.15etan.



▼ Futbitoa:

- **Astebukaeran** Labegaraieta Kiroldegian.

5

PROFESIONALAK

- **Urzainki-Andueza V.a/ Lujanbio-Galardi.**
- **Aldazabal II.a-Ansotegi/Lejardi-Martinikorena.**
- **Intxaurrenondo-Buentea / Badiola I.a-Alberdi III.a.**

Larunbatean, 16.30etan Udal Pelotalekuan.

ZUBIETA

elektragintza

- ✓ **Motoren bobinaketa**
 - ✓ **Era guztietako instalakuntzak**
- Kruz Gallastegi, 2 behea
Tfnoa: 76 23 48

**A
R
R
A
N
O**



Taberna

O Kruz Gallastegi BERGARA

KAILASH

**ZENTRO
ESOTERIKOA**

Parasikologi Zientzien Instituto
Hispano Amerikarrean
diplomatutako profesionalak
Tarota • Hipnosia • Erresonantzia
Tfnoa: 76 01 31 (Iris)

Adierazpen askatasuna

Azken aldi honetan Bergarako Udaletxeak aurrera daraman ekinbidea ikusita, hau da, herriko hainbat erakunderi espresio librea ukatuz eta bere ideia eta aldarrikapenak kaleratzeko ukatuz, azpian sinatzen dugun taldeko zera adierazi nahi diogu Bergarako Udaletxeari:

- Edozein pertsona edota talde librerri espresatzea oinarritzko eskubidea dela uste dugu. Adierazpen askatasunak, hitzak dioen bezala, zera esan nahi du: edozein ekintza, iritzi, programa, etab... herriari azaltzeko orduan traba edo oztoporik jartzea.

- Sistematikoki hainbat erakunderako kartelak kentzea eta erakunde hauekako partaideenganako eraso politziala jarrera totalitarioa, antidemokratikoa eta oso selektiboa da.

Hau garbi gelditzen da, Udaletxeak kartelak kebde eta mural batzu ezabatzen dituen bitartean, beste talde batzuei murala egiteko eskaintza luzatzen dielarik. Gainera, herria propaganda komertzialez josita dagoela garbia da.

- Gaur egun Bergaran era askotako taldeak dira (kulturalak, sozialak, kirol taldeak, politikoak...) beraien lana kaleratzeko orduan. Uste dugu, espresara honek ez daukala gaur egun Udaletxeko gobernuan dauden partidu politikoek filtroa pasatu behar.

Lan egiteko modu hau komunikabide

ofizialen lana bezain zilegia eta beharrezkoa da eta urtetan zehar, hainbat taldek erabilia gainera.

- Udaletxeak hartutako neurri hauek, badirudi herria garbi mantentzeko arazoan ez zaizkigu egokiak iruditzen eta honengatik aurkezten dugu garbitasunarekiko eta askatasun adierazpenarekiko errespetua mantentzen duen alternatiba hau:

- Kolaz kartelak jarru ahal izateko herriko puntu ezberdinetan panelak jartzea.

Kolarik gane herriko kaleetan kartelak ipini ahal izateko baomena; beti ere interes historikoa duten fatxadak zainduz.

- Pankartak zintzilikatu ahal izateko baimena, gure partez kalterik sortuko ez duen lekuetan ipintzeko konpromezuarekin.

Ingurugiroa errespetatuko duten muralak egiteko aukera, lehentasuna interes gutxiko lekuei emanez (egurrak, zementoa, adreilua...).

Adierazpen askatasunaren aldeko asanblada

Krudeltasunik gabe egindako berokien alde

Hotza nagusi den urtaro honetan animalia larruekin egindako berokien anuntziok gure etxeetako buzoiak betetzen dute. Honen aurka sentsibilizazioa kanpaina

txiki hau martxan jartzea erabaki dugu.

Gure babestaserako berokiak egiteko ez dugu animalien larrua derri gorrez behar, aldiz beraiek ez dute beste aukerarik.

Orain guztion txanda da, ez ditzagun beroki hauek erosi, babestu dezagun gero eta urriagoa den fauna.

EGUZKI (Euskadiko Antinuklear eta Ekolojistik)

Oztoporik ez

Paralisi zerebralak jotako mutil bat naiz eta motordun silla batean ibiltzen naiz. Espaloietatik jeisteko egoten diren aldapatxo askotan eta zebrabideetan ezin izaten dut pasatu autoak aparkatuta egoten direlako. Hori dela eta, autodunei eskatuko nieke mesedez errespetatu ditzatela zebrabideak eta espaloietako aldapatxoak, bestela ezinezko zaidalako bakarrik ibiltzea.

Agur bero bat.

Aritz Bikuña

Tiira ba!



Josu Okina

Udal irratia jartzeko aukerak aztertzen

Txapak bere proiektua bultzatzea eskatzen dio Udalari

Aritzeta abesbatzak Jose Lazkano omenduko du

Larunbatean, hilak 6, Aritzeta abesbatzak hainbeste urtetan partaide izan duen Jose Lazkano omenduko du. Goizean Elusuko elizan meza izango da eta jarraian Altzasu elkartearen lagunarteko bazkaria izango dute. Aritzetak Jose Lazkanok Bergarako kulturaren alde egindako lana eskertu nahi du, besteak beste, eta beste jende baten laguntzaz, Bergarako Musika Eskolaren sortzailetariko bat baita Jose Lazkano. Aritzetak, Agustin Badiola presidentearen bitartez, *"betirako eskertuko dio hainbeste urtetan zehar berarengandik jasotako laguntasun nahiz maitasuna. Benetan, ohoretzat dugu Aritzetako lagunok abesbatzan horren gizon bikainarekin batera abestu izatea eta benetan eskerrik beroenak eman nahi dizkiogu bihotz-bihotzez"*.

Udalak Bergaran Udal Irratia jartzeko biabilidade azterketa egitea eskatu dio herriko kazetari bati. Azterketak, irratiaz gain, herriko prentsa lokalaren antolaketa ere hartuko luke.

Bi hilabeteko epea jarri dio ikerketa hori burutzeko eta behin emaitzak eskuetan izan eta gero, etorkizunean Udal Irrati bat jarri edo ez erabakiko luke.

Inguruan, Oñati Irratia

Inguruko herrietan bada martxan dagoen Udal Irrati bat, Oñati Irratia hain zuzen ere, eta beste batzuen artean, eredu hori aztertzen ari da Udalaren enkarguz lanean ari den aditua.

Oñati Irratia orain dela bi urte hasi zen emititzen zuen lehen aldiz eta harrezkero, hiru orduz emititzen du egunero. Bi lagun ari dira lanean (bat egun erdiz), eta urtean 7 milioitako presupuestoa du. Irratiko tresneria, ostera, 2 milioi t'erdi kostatu zitzaion Oñatiko Udalari 1985ean.

Oñati Irratiko ereduaz gain, beste batzuk ere az-



Oñati Irratio, bi urte emititzen

tertzen ari dira aipatutako estudioan Getxo Irratiaren kasua esate baterako.

Txapa Irratiaren oharra

Bestalde, Txapa Irrati-ko asanbladak idatzi bat zabaldu du komunikabideetara.

Besteak beste, Udalarekin dituzten harremanak *"normalak direla"* adierazten da idazkian.

Horretaz gain, ukatu egiten dute Udalarekin Txaparen estatutuen aldaketa negoziatzen dihardutenik eta adierazten dute udalak irratia libre bati eta honen funtzionamenduari buruz duten iritzia zehazteko eskatu

ziela eta hori egin dutela.

Hil honen 27an amaitzen da Udalak eta Txapak irratia errentzako lokala uzteko sinatu zuten kontratua eta joan zen asteko BERRIGARAN kontratua ez zitzaiela berriztuko adierazten genuen. Txapa Irratiaren komunikatuan: *"kontratua legearen aldetik gaizki egina bada, ez dadila aitzaki bat izan, eta zerbait aldatu behar bada, aldatzeko"* eskatzen zaio Udalari. Amaitzeko, Udal Irratiaren proiektua eta Txaparena bi proiektu ezberdin direla diote irratia librekoek eta *"Txapa martxan dagoenez proiektu hau bultzatzea"* eskatzen diote Udalari.



AKORT

- Fotokopiak kolororetan
- Publizitate-dun kamisetak
- Oihal inprimaketak

San Lorentzo, 7
behea. Tel. 76 50 39

Artekale, 15
behea.
BERGARA
☎ 76 58 86



- SUKALDEA
- HORMA-ARMAIRUAK
- NEURRIRA EGINDAKO ALTZARIAK
- ATEAK-LEHIOAK

ONENA
TINDATEGIA

Barrenkale 29, BERGARA

Amodiozko gutunen lehiaketa

JARDUN Elkarteak Udala eta Diputazioaren laguntzaz konbokatutako *Amodiozko Gutunen I. Berrigara Lehiaketara* lanak aurkezteko epea otsailaren 14an amaituko da. Lehiaketa honetan 1978an edo lehenago jaiotako edozeinek har dezake parte, lanen luzera ez da bi orrialde (DIN A4) baino gehiagokoa izango eta irabazleak 75.000 pta.ko saria jasoko du. 2. saria 40.000 pta.koa izango da eta bergarar onenak 25.000 pta. jasoko ditu.

Matrikula zabalik ERDU euskaltegian

Arrasateko ERDU-AEK euskaltegiak matrikula epea zabalik izango du otsailaren 12ra arte. Maila guztiak emango dira 5, 3 eta 2 orduko ikastaro ezberdinetan eta EGA ikastaro bereziak goizez eta arratsaldez eman ahal izango dira. Interesatuak euskaltegira bertara (Garibai 14, 3.pisua) jo dezakete, goizez 10etatik ordubietara eta arratsaldez Setatik 9etara.



Asteazkenen jende ugari hurbildu zen San Blas ermittara Meza entzuterako

San Blasak Muinondon

Auzo-afaria, Mus Txapelketa eta bizikleta ibilaldia

Asteazken goizean eman zitzaizen hasiera San Blas auzoko jaiei ohizko opilen bedeinkaketarekin, ondoren salda eta txorizoa banatu zirela bildutako jendearen artean. Astebukaeran aurrera egingo dute Muinondo auzoko jaiek.

Horrela, ostiralean, arratsaldeko 7etan San Blas ermitako hermandadeko kideeen bilkura egingo da aspaldiko ohiturari jarraituz eta gaueko 8 t'erdietan auzoafaria eta jarraian Iosu eta Iokin soinu-joleekin erromeria.

Larunbatean arratsaldeko 4etan

V. San Blas Mus Txapelketa jokatu da (8 erregetara), izen-ematea 3 t'erdietan hasiko dela eta bikote bakoitzak 1.000 pta. ordainduz.

Igandean, berriz, goizeko 11etan Meza Nagusia izango da, jarraian Auzoko elkartean salda beroa banatuko da, eguerdiko 12etan Mendiko Txirrindu Ibilaldia jokatu da. 14 urterarteok 5 km.ko zirkuitoari bira bat eman beharko diote eta hortik gorakoek zirkuitoan 3 bira burutu beharko dituzte. Ondoren, jaiei bukaera emanaz, haurrentzako kukañak.

ORTZI
ERRETEGIA

ANGIOZAR ☎ 76 22 68

IBARGUREN PENTSUAK

**Biona pentsuen biltegia.
Bioter produktoak eta haziak.**

San Pedro 3, Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

IZARRA
Ileapaindegia



Mistoa

San Pedro 23 Tfnoa: 762972

MINER **Ardo onak,**
ardoa **jakina**

Biltegia: Tfnoa: 76 59 89 BERGARA



Baltsa, tangoa edota manboa irakatsiko dira ikastaroan

Dantza Ikastaroak

Jardun elkarteak antolatuta, otsailetik apirilera bitartean

JARDUN elkarteko kultur taldeak dantza ikastaroa iragarri du otsailaren 27tik aurrerako 7 larunbatetan, arratsaldeko 4retatik 6rak eta laurdenetara. Binaka edota banaka parte hartzeko aukera izango da. Baltseoa, tangoa edota manboa irakatsiko dira eta prezioa 4.000 pta.koa izango da JARDUNeko bazkideentzat eta 5.000koa gai-nontzekoentzat.

Bestalde, Jarduneko Gazte eta Kultur taldeek gazteei zuzendutako bideo-emanaldiak jarriko dituzte martxan datorren ostiraletik, hilak

12, aurrera. Datorren ostiralean arratsaldeko 6 terdietan *Eurigizona* (Rain Man) emango da Kultur Etxeko proiektio gelan eta hilaren 26rako, berriz, *Robin Hood, lapurren printzea* iragarri da. Sarrerak 50 pta. balioko du eta beste hainbat tituluren artean, *Arrosaren izena, Harreman arriskutsuak, Behiak, Txip aparta, Mad Max* edota *Ehun metro* bideoak ikusi ahal izango dira. Haurrei zuzendutako bideoak larunbatetan izaten jarraituko dute eta hilaren 13an *Nire pony txikia* emango da.

Ondare-historikoa Ariz-Ondon

Urtarrileko alearekin batera Ariz-Ondo aldizkariak *Bergara: ondare historikoa* izeneko bildumagarria kaleratzeari ekin dio. Xabier Aranburu museologoa eta Pol Pol Argazki Taldearen laguntzaz, hilero bi fitxa argitaratuko dira, datozen 11 aleetan bildumagarria osatu arte. Urtarrilean azalak eta *San Pedro Ariznoakoaren* eta *Santa Marina Oxtirondokoaren* fitxak jaso ahal izango dira.

Orfeoiko zuzendaritza batzorde berria

Honako pertsona hauek osatuko dute Bergarako Orfeoiaren zuzendaritza batzorde berria: Amaia Marcó presidentia; Fran Martinez zuzendariordea; Arantxa Balanzategi eta Arantxa Idigoras izango dira idazkariak, Julian Muniategi diruzaina eta bokalak Arantzazu Aspiazu, Carlos Etxaniz eta Xabier Zabaleta. Bestalde, Kristina Larrañaga orainarteko zuzendariak zuzendariorde lanak beteko ditu aurrerantzean.

LAKET

Gizon Emakume

Barrenkale 35 BERGARA

GOIERRI
Autogidarien eskola

Fraskozuri Enparantza 5

Tfnoa: 76 41 50

BERGARA

CAMACHO

Drogeria
Usaindegia

Bidekurutzeta 24, Tfnoa: 76 13 35
BERGARA

ederTU

ERA ETA PREZIO GUZTIETAKO ALTZARIAK

Barrenkale 23

Tfnoa: 76 29 65

BERGARA

UMORE ONA

Abeslarien elkarte

Bixente Eguren, Roman Garitano eta Jose Ramon Egurenek kontatu zigutenez, elkarte sortu aurretik Umore-Ona ize-
nean ibiltzen zen kantu talde bat zegoen. Honela sortu zen elkarte bat egiteko asmoa. Ideiak aurrera jo, eta 1948.eko Irailaren 16an inauguratu zen Umore-Ona elkarte.

Ordutik, San Martin de Agirre da Umore-Onako patroia, eta urtero ospatzen dute urteurrena bazkari batez.

San Martin egunaz gain, badute beste jai egun bat. Ekainaren bigarren igandean egun pasa joaten dira San Martzialera bazkide guztiak. Nahiz eta lehen eskurtsioak egin, jadanik badira 34 urte San Martzialen gelditzea erabaki zutenetik.

Baina jai denak ez dira beraientzat; lan egitea ere tokatzen zaie. Umore-Onak beti hartu izan du parte haurren egunean,

topaketetan...

Bazkideak

Elkarte honetan 89 bazkide dira. Bazkide hauen batzbesteko adina 58 urte ingurukoa da.

Umore-Onan ez dago jubilatutik batzbesteko adina altua delako. Miguel Okina ohorezko bazkidea da elkarte.

Hilean 800 pztako kuota ordaintzen dute. Urtean, kuota eta kontsumoa barne, 2.400.000 pztako kaja batzen dute. Umore-Ona berezia da faltan kontuan. Ez dago faltarik. Egunero egiten dituzte kontuak eta dena



Argozkian elkarteko kide batzuk afaltzen

dago kontrolaturik. Bergarako jaietan eta horrelakotan, normala den bezala, gauza pixkat enredatzen da, baina tira.

Koadro ederrak ere badituzte. Elkarte Miguel Okina, Simon Arrieta eta beste margolari ba-

tzuren marrazkiekin dago dekoratua.

Tanborrada

Esan beharrekoa da 1951. urtean ospatu zen San Martinetako lehenengo tanborrada Umore-Onak egin zuela. Beraz, hemen ditugu tanborradaren sortzaileak.

Sukaldeko espezialistak ere badira. Hor aritzen dira Jesus Ibañez bere "Ibañez tortilarekin" eta Jose Luis Osinalde "sopa motorista" rekin.

Ainboa Lete

FITXA TEKNIKOA

SORTU: 1948ko irailaren 16an.

BAZKIDEAK: 89.

HELBIDEA: Barrenkale, 38.

PRESIDENTEA: Roman Garitano.

ELKARTEAREN EGUNA: San Martin eguna.

URTEKO KUOTA: 9.600 pzt.

SOLOZABAL AUTOESKOLA

TRANSPORTISTA IKASTAROA 1993

- Merkantzia eta bidaiarien naziobarneko eta nazioarteko titulua eta agentzia
- Interesatuek jarritako ordutegia. Asteburuak
- Kamioidun eta garraiolarien lanbide heziketarako eskola espezialdua

EDOZER GAUZA GIDATZEN IKAS EZAZU

Toribio Etxeberria, 5 EIBAR ☎ 70 23 84

Etxezarreta, 15 ORDIZIA ☎ 16 12 21

GURIA Taberna

Bidekurutzeta 5,
Tfnoa: 76 20 34


ETXEPARE - BILINTX LIBUBUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12, Tfnoa: 76 40 50 BERGARA



Agustin Aranzabal "Sanse"n ari da jokatzeko talde honekin 4 urtetarako kontratua du eta, gainera, Realak 500 miloitako klausula jarri dio. Hurrengo 3 orri hauetan Agustin berarekin egindako elkarrizketa eskeintzen dizuegu. Berak argi utzi digu oraindik ez dela heldu



Agustin Aranzabal, aita eta semea. Haren indarrak eta kemenak Atotxa zaharreko zaletuak zorotzen zituzten. Semea jokatzeko ikusi dutenek, berriz, teknika haundiko mutila dela diote, bere ezkerreko hanka aspaldian ikusi ez den modukoa dela... Beharbada aitaren karakterra falta zaiola diote batzuek, baina nortasun bereziko mutila dela erakutsi du behin baino gehiagotan. Etorkizuneko Realean, Anoeta berrian jokatu duen hamaikakoa toki berezia izango du. Ziur gaude.

Agustin Aranzabal, aitaren urratsak jarraituz futbolaren goreneko mailaren atarian

goreneko mailara, baina aste honetan bertan, Realaleidara joan baino lehen, Agustini lehen mailara igotzeko gutxi falta zaiola adierazi zioten Berrigarari bere taldekideek.

Agustin Aranzabalek, gaztea den arren, 19 urte, badaki Atotxan John Toshacken ondoan jarrita egoteak zer suposatzen duen. Baina orain arte lehen mailako atak jotzea baino ez du egin. Orain ate hori pasatzea gelditzen zaio.

- Nola joan zaizu aurtengo denboraldia?

- Aurten ez nintzen hasi jokatzeko, baina gero 6. partidutik aurrera "Sansen" titular aritu naiz eta azkenaldian Realarekin ere entrenatzen dut.

- Ze postutan jokatzen duzu?

- Atzekaldean ezkerreko hegalean jokatzeko dut. Hasieran infantiletan erdikaldean jokatzeko nuen, baina gero jubenilean eta Sansen atzekaldera pasa ninduten.

- Zein da zure punturik onena?

- Realean atzekaldeko hegalek asko igotzen dute eta aurrera asko jo behar izaten dugu. Hau da, nire ustez, nire jokoak duen alderdirik onena, aurrera jo eta gero aurrelarietara golak egiteko erdiratze onak egin.

- Eta hobetu behar duzu?

- Defentsan asko hobetu behar dut eta esku-mako hankarekin eta buruarekin ere asko hobetu behar dut. Nire kabuz aritzen naiz eskuineko hankarekin baloia hormaren kontra joaz, hala eskuineko hankarekin konfidantza eta joku gehiago izateko.

- Atzerritarrek fitxatzearen aldekoa zara?

- Nik ez dut ondo ikusten, baina Realean erabakia hartu dute eta orain ditugun atzerritarrek oso jende jatorra eta jokalarionak dira eta gehiago

esango nizuke, orain ondo ikusten dut Realak atzerriarrak izatea orain ditugun atzerriarrek asko hobetu baitute gure jokoa.

- Zure ustez nor da Errealeko jokalaririk onena?

- Momentu hauetan jokalaririk konpletuena Imaz da, beti atzean eta aurrean dabil eta baloi asko berreskuratzen ditu. Gero oso onak Carlos Xavier eta Bittor Alkiza dira, teknika aldetik hauek dira hoberenak.

- Zure postuan hobetzeko zein jokalaritan fijatzen zara?

- Fijatu denetan, baina



Agustini etorkizun oparoa aurreikusten diote Realeko teknikoek

"Entrenamenduetan Toshack-ek ez digu ezer esaten"

Lasa da gehien gustatzen zaidan jokalaria. Uria ere oso momentu onean dago eta bere jokoa nolakoa den ere ikusten dut. Baina munduko onena Maldini Milanen jokatzen duena da.

- Ze diferentzia dago Toshack eta Etxarriren artean?

- Etxarri entrenamenduetan beti gauzak zuzentzen ibiltzen da, Toshack, berriz, beti gure jokoa begiratzen ari da. Toshack Etxarri baino isilagoa da eta beti gauza denak beretzat gordetzen ditu, baina entrenatzaile moduan oso ona da.

- Atletico de Madrilen aurka konbokatua izan ondoren, zerbaitetan aldatu da zure jarraera?

- Ez!, ni oraindik "Sanse"n nago eta asko daukat ikasteko. Ni trankil nago eta gauzak ondo irtetzeko poliki-poliki egin behar dira.

- Nola ikusten duzu Realaren egoera?

-Azkenaldian (elkarriketa Burgosen aurka partidua baino lehen egina dago) nahiko joku ona egiten ari dira eta gol

aukerak sartzen badira uste dut Realak gorantza egingo duela. Gainera, jendea gogo askorekin ikusten dut eta aurrera egiteko gai izango direla uste dut.

- Futboleko gazteak modan daude...

- Realean ikusten da Toshack gazteriaren aldeko apostua egiten ari

dela, baina estatu mailan Julen Gerrero ikusten dut jokalaririk arriskutsuena, baina konpletuena Imaz da.


- Etorkizunerako ze asmo dituzu?

- Aurten "Sanse"rekin ahalik eta lan onena egin eta ea datorren urtean Realean jokatzeo aukera daukadan.


Hiru belaunalditako jokalaririk mintzo



Gaztelu



Larrañaga




Alkiza

"Agustin fisikoki altua da, baina oraindik gorputza ez du guztiz egina. Ezkerreko hankarekin ondo moldatzen da, gainera futbola erraz ikusten du eta futbol zelaian dagoenean oso kontzentratua egoten da. Eskumako hanka hobetu behar du eta buruarekin min gehiago egin behar du".

"Gurekin hiruzpalau aldiz entrenatu du eta ez dut ondo egi ezagutzen. Aitarekin jokatu nuen eta biak ezberdinak dira, aita indar gehiago zuen eta erdian jokatzen zuen, semeak hegalean jokatzen du eta teknika handiko mutila dela erakutsi du. Aitaren indarra eta kasta ekartzen badu aurrera irtengo du".


"Agustin "Sanse"n ondo dabil eta entrenamenduetan ere fin aritzen da. Gurekin egon zen Athletico de Madrilan aurkako partiduan eta jokatu ez zuen arren pozik egoteko modukoa da. Nire ustez, oraingo moduan jarraitzen badu laister eduki dezake leku bat Realeko lehen taldean".

Txuri-urdirin jantzi diren beste bergararrak



Gaztelu

Sanse eta
Real Sociedad
1965-1980



Igarza

Sanse
1965-1967




Larrañaga

Sanse eta
Real Sociedad
1969-1977




Aranburu

Real Sociedad Jubenila
eta Sanse
1970-1974




Juaristi

Sanse
1973-1978




Olabarria

Sanse
1973-1977



Arbulu

(izatez, antzuolarra)
Sanse
1973-1977



Odriozola

Real Sociedad Jubenila
1979-1980



Lazkano

Real Sociedad Jubenila
1985-1987



Berraondo

Gaur egun Realeko
Jubeniletan
1990.etik

Jabier Exposito

Realeko koordinatzaile orokorra

"Toshack oso kontentu dago Agustinekin"

- Gogoratzen dituzu Bergarako jokarariak?

- Bai, gehien gogoratzen dudana Gaztelu izan da, hau izugarritzko jokalaria izan zen, karakter eta teknika handia zituen. Gogoratzen dut, Kubalak selekziora eraman zue-nean eta selekzionatzaile oso pozik gelditu zen. Gero ere hor dago Larrañaga, nirekin "Sanse"n egondakoa, honek izugarritzko karakterra zuen eta beste batzuekin "Sanse"ri nortasuna eman zion, gero nirekin asko jokatu zuen beste bat Jua-

risti izan zen, baina beste batzuk ere badaude: Olabarria, Arbulu, Aranburu, Igarza, Odriozola, Lazkano hauek ez zuten zorte handirik izan, baina pertsona moduan oso-oso-koak ziren. Orain Aranzabal eta Berraondo ditugu bakarrik, baina espero dut etorkizunean gehiago izatea.

- Zela ikusten duzu Agustín?

- Oso ondo dator eta momentu hauetan "Sanse"tik igotzeko gertuena dagoena da. Gaztetatik daukagu hemen eta bere



Expositok urteak daramatza Zubietako berdegunean eta despatxoetan lanean.

aurrerapenak nabarmenak dira, Toshack oso pozik dago berarekin eta gainera Agustinek guk erakusten diogunaz gain bere aitarengan maisu bikaina du.

- Diferentziarik aita

eta semearen artean?

- Oso ezberdinak, bata eskuma eta bestea ezker-rra, bata handia eta bestea txikia... Aitarengan gauza onak hartu ditu eta espero dezagun, aita baino hobea izatea.



Appéñiz

**ARGAZKIAK
ORDUBETEAN**

- ✓ Diapositiba errebelatzeak.
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta ezteietako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, ☎ 76 00 50



**ETXE-
-AUNDI**

**Negoio bazkariak
Ezkontzak
Banketeak**

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI

**MAHER
Biltegiak L.E.
Oihal etxea**

Bidekurutzeta 29,
Tfnoa: 76 22 90 - 76 26 75

TOKI-EDER

Taberna

**Pintxoak eta eguneko
bazkariak**

Artzamendi, Tfnoa: 76 51 84




Tfnoa: 76 38 57
Irala 1

**Jaiegunetan ere dendak
zabaltzea ondo ikusten duzu?**



Mila Berriotxoa
32 urte, irakaslea

Komertzianteei kalte egiten diela uste dut. Guretzat, berriz, ondo dagoela uste dut.




Jabier Mujika
69 urte, dendaria

Denda haundientzat bentaja da baina guretzat kaltegarri, langile gutxiago ditugulako.




Agurtzane Alastui
28 urte, dendaria

Ondo dago baina nahiko ordu sartzen ditugu dendariok oraindik jaiegunetan lanegiteko.



Jose Luis Hurtado
38 urte, mekanikoa

Ondo ikusten dut, batez ere astean lan egiten duen jendearentzat. Baina dendariak *esplotatzeke*.




POL - POL TABERNA

Tfnoa: 76 48 51

DEPORTIVO TABERNA

Tfnoa: 76 01 51



**Insumisiñuak
lau urte**

Denboria be aurrera doiala ta, badie lau urte insumisifua martxan jarri zanetik, ezta gutxi esango dabe batzuk, pelmada ederra beste batzuk, dana dala kontuak etara ta lau urte.

Egixa esan danetik pasau da denbora honetan, baina laburtuta: gobernua insumiso eta objetoreak banatzen saiatu dala lehenego egunetik ta honek eztabela momentu baten be atzeraka ein.

Hori kontutan hartuta ta gaur egun daukaun panoramia zein dan ikusitta, ohar pare bat besterik ez:

- Ordezko Zerbitzu Militarrek eztabenez ezer konpontzen, objezió legala eitterakuan kontutan hartu ze suposatzen daben horrek, bai, soldauzka ta ejerzitian kontrako mugimendua desegiteko gobernuan aukera bakarra hori da ta.

- Insumisifua ez eitteko orduan bilurra aittatzen da geixenetan, baina justu kontrakua gertatzen da pausu hori eman ezkeru, benetan, eztao inolako bilurrik euki biharrik, hau einda dago ta.

Joxe Lazkano



**Nekazal edo
errural
plataforma**

Azken egunotan hainbat auzo txikitako festak ospatzeko aukera izan dugu. S. Bixenteak, S. Antonak. S. Blasak, orain Sta. Ageda... ohitura zaharrei eta baserri giroari loturiko jaiak.

Eta badirudi kale girokoek ere halako jaiak indar berezi batez ospatzen dituztela, gure kultura eta iraganaren sustarrak mantendu nahian bezala. Izan ere, nork ez du hemen nekazal jatorririk?

Baina zoritxarrez nekazaritzaren krisiak jai horiek eta gainontzeko errural bizitza ere arriskutan jartzen ditu.

Nekazariok oso pisu gutxi dugu gizartean, nahiz eta lurraldearen % 80a inguru geuk zaindu eta mantendu eta argi dago geu bakarrik ez garela gauza inguru horretako bizitza aberatsa aurrera ateratzeko.

Horretarako gizarte osoaren beharra dugula ikusirik EHNE sindikatutik Nekazal Plataforma bat osatzeari ekin diogu. Datozen egunotan hainbat talderi deituko zaie (kontsumitzaileak, ingurugirozaleak, kristau taldeak, nekazal inguruko sendagile, irakasle, euskaltzale eta horko dinamizazioan interesa duen edonori) plataforma horren berri eman, parte hartzera gonbidatu eta aurrera eraman daitezkeen ekintzetaz hitzegiteko.

Bergara osatu eta inguratzen duten auzo txiki guzti horien bizitza mantentzea ez da soilik nekazarion arazoa. Denon kontzientziazioa, lana eta imajinazioa eskatzen du.

Maite Aristegi

Kabia

Altzariak

Gipuzkoa Etorbidea 28, Tfnoa" 79 27 70 ARRASATE




P. MANSO
OPTIKA

OPTIKOA, OPTOMETRISTA

Irizar ibilbidea 2, tfnoa: 76 27 86

HEMEN
edertze aretoa



Matxiategi, 36 behea ☎ 76 58 88

Beheko Taberna

Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak.

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

PELI NARBAIZA IBARZABAL



Mutua General de Seguros

Agentea Bergaran

Aseguru orokorrak

Matxiategi, 3 - 5.B BERGARA ☎ 76 47 57



Ziripot

Bidekurutzeta 11, Tfnoa: 76 11 41



URRATS



Kafetegia

Ibargarai Tfnoa: 76 52 92
BERGARA



□ Parrokietako koroak Pertxan

Joan den larunbatean Santa Marina eta San Pedro parrokietako koroetako kideak Pertxa elkartearen bildu ziren bazkaltzeko. Guztira, 50 bat lagun izan ziren bertan eta primeran igaro zuten elkarrekin. Parrokietan diru bat izaten da bi koro hauentzako eta bazkari hau egiteko aprobetxatzen dute. Ez dakiguna da larunbatean ere kantuan amaituko zuten...



□ Kartel irabazlea

Aloña Altuna 30 urteko bergararrak irabazi du Kultur, Jaiak eta Gazteria Batzordeak karnabal jaietarako konbokatutako kartel lehiaketa. Aloña Altuna Barrena-Berri baserrikoak jasoko du irabazleari zegozkion 50.000 pta.k. Bestalde, Batzordeak jendearen erantzun eskasa ikusita, Jaietarako kartel lehiaketarako epea martxoaren 15ra arte luzatzea erabaki du.

ITURKINTZA



ITURKINTZA

ARISTEGI - TOLA

ITURKINTZA - BEROGAILUAK - GASA

Bolu, 26 behea ☎ 76 54 17



□ **Santa Ageda eskean**

Ostegunean jende ugari irten zen kalera **Santa Ageda** eskean. Goizean Jubilatuetako abesbatzak Mizpirualden abestu ondoren, kalean eta Jubilatuen Egoitzan ere erakutsi zuten beren maila, eta arratsaldez, ikastetxe ezberdinetako neska-mutikoak izan ziren, makilak eskuan, kantatzeari ekin ziotenak. Santa Ageda bezperan...



Zertan dihardute ba?

MARIPI LASKURAIN



Majisteritza eta itzultzaile ikasketak egin zituen 27 urteko antzuolar honek eskuratu du Udalak lehiaketa-norgehiagoka bidez bete duen itzultzaile-trebatzaile plaza.

ANGIOLILLO



Orain 6 urte sortu eta Musti, Torretxo, Esteban eta Iñigok osatzen duten musika talde bergarar honek 13 bat abesti grabatu dituzte Gasteizko Cuvyco estudiotan, orain maketarekin zer egin aztertzen ari direla.

Zure konfidantzako denda



Tfnoa: 79 13 55 - 79 27 27

ARRASATE

Umore giroan

Zorra ordaintzeko

Plaentxiar batek zor zetsan eibartar bati. Ikusi dira. Eta artzeko-dunak, diñotsa:

- I, baiña, noiz pagau biar destak?

- Ara ba, -diño bestiak papela boltsikotik atarata-, emen listia... onetxek danok daukadaz... laugarren ago.

- Zer lista ta zer laugarren! Ez-taok deretxorik!

Orduan plaentxiarrak:

- I, txulo jartzen baiz, azkenera pasauko aut.

Mediku jauna, ni banoia!

Beñ batian deitxu zetsen proisa guztiakin Artadi medikuari etxe batera juateko. Beriala baten eldu da medikua gaixuagana eta au asizan negarrez eta larri esaten:

- Artadi jauna, ni gaizki nago, ni banoia!

Eta medikuak:

- Ez ari estutu. Baoian bitxartian, ondo ago. Txarra dok, eruaten gaitxuenian.

Pedro Zelaia

Bergarako 3 jokalaririk Realera

Ez dakigu guk oraindik gauza ofizialik baina zurrumurruak dio Bergarako Kirol Elkarteko 3 jokalaririk probintziako lehen ekipoak fitxatu dituela. Jendeak dioenez, Donostiarako bidea hartuko dutenak Arbulu, Juaristi eta Olabarria dira.

(73-II-11)



Olabarria, Juaristi eta Arbulu (makurtuta) Bergarako taldean Realera joan aurretik

Azkargortaren ondoren Moises Eguren Bilboko Windsor Galeriarira

Atzorarte ikusi ahal izan da Bilboko Windsor Galerian Fernando Azkargorta, margolari bergararraren erakusketa eta bertaratu direnak benetan gustora utzi ditu ikusitakoak.

Eta, gaur, oraindik Azkargortaren lanak Bilbotarren gogo-bihotzetan bizirik dirauenean, gure herriko

beste margolari bat, Moises Eguren abadea, joango da Bilbora bere margolanak erakustera. Garbi dago Simon Arrieta handiak bidea ondo markatuta utzi zuela eta ez duela jarraitzailerik falta izango. Windsor Galerian, gai ugari buruzko 35 lan izango ditu ikusgai Moisesek.

(73-II-1)

ORAIN DELA...

INFERNUKUA TABERNA

Mahasterreka 23, Tfnoa: 76 18 49

MUJIKA

Burdinaki denda

Bidekurutzeta 8

☎ 76 28 67

BERGARA



TOSHARE

ILEAPAINDEGI MISTOA
ESTILISTA.

Artekale 29, Behea

Tfnoa: 76 29 70

BERGARA

BONOFOTOA



M. A. Elkotobereizbar



Luziano Larrañaga

Luziano Larrañagak jaso du aste honetan BONOFOTOko saria. Orain dela bi asteko argazkian agertzen zen eraikina **Ozaeta Jauregia** zen. Bergarako hamarrarian, berriz, Ozaetako makilak agertzen dira.

10.000 pzta.ko saria eskuratu du Luzianok. ZORIONAK berari eta ea besteek hurrengoan suerte hobea duzuen.

Zein da **baserri** honen izena?

Izena: _____ Abizena: _____ Tfnoa: _____

Aste honetako
saria : 10.000 pzta.

Moztu paper hau eta
ekarri astebete baino lehen:

BERRIGARA
Errotalde Jauregia Bergara

GAZTEENTZAKO BIDEO EMANALDIAK

"RAIN MAN"
(eurigizona)

EGUNA:

Otsailak 13

ORDUA:

Arratsaldeko 6.30ak

LEKUA:

Kultur Etxeko proiektzio gela

ANTOLATZAILEA:

Jardun elkarteko Gazte eta

Kultur taldeak

LAGUNTZAILEAK:

Bergarako Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia



DANTZA IKASTAROA

Baltsa • Tangoa • Manboa

HASIERA MAILA

NOIZ:

Larunbat arratsaldetan, 4etatik 6etara. Otsailaren 27an hasi eta 7 astetan zehar

PREZIOA:

5.000 pzta. (4.000 pzta. JARDUNeko bazkideentzat)

BANAKA APUNTATU DAITEKE

IZEN-EMATEA:

Jardun Elkartea. Masterreka 13. ☎ 76 0819. Arratsaldeko 7etatik 9etara. Otsailak 22a baino lehen.

ANTOLATZAILEA:

Jardun elkarteko Kultur
Taldea

LAGUNTZAILEAK:

Bergarako Udala
Gipuzkoako Foru Aldundia

Ikastaroak

Igeriketa ikastaroak iragarri ditu Udal Kirol Zerbitzuak. Ikastaro arruntak 20 ordu ditu eta otsailaren 9an hasiko da, hobekuntza ikastaroa (10 ordu) otsailaren 16an eta 3 eta 4 urteko haurrentzako ikastaroa (10 ordu) otsailaren 17an. Era berean, tenis ikastaroa hilaren 23an hasiko da. Interesatuak Kirol Zerbitzura jo dezakete.

Igeriketa

Astebukaeran Gasteizen jokatuak Euskadiko Junior Igeriketa Txapelketan, Jon Jauregi txapelkun izan zen 400 m. estilotan eta Gorka Gonzalezek, berriz, 3. postua lortu zuen 100 metro brazatan.

JOKIN ETXANIZ: "Gure asmoa finalera heltzea da"

Etxaniz eta Zezeaga pelotari bergarrek hasiera ezinobea eman diote ohizko enpresen eskuzbinakakko txapelketari, joan den igandean Eibarko Astelenan Retegi eta Tolosari 22 eta 25 irabaziz.



- Hasiera ezinobea, Jokin.

- Pozik gaude bai. Printzipioz beldurra genien baina partidu ona egin genuen, batez ere Jose Marik, eta garaipen inportante bat lortu dugu. Retegi-Tolosa bezalako bikote bati irabazten has-teak animoa ematen digu.

- Noraino heldu zaitzketela uste duzu?

- Ba horrelako txapelketa bat hastean beti duzu finalera heltzeko itxaro-

pena. Hori da Jose Mari eta bion asmoa eta lortu dezakegula uste dugu, faboritoak izan ez arren. Dakigun bezala jokatu-ta ez da hain zaila izango.

- Eta zeintzu izan daitezke zuen kontra-rioak finalean?

- Urionaguena eta Gal-larzak oso bikote ona osatzen dute eta Eugi eta Belokik ere lan handia emango digute. Gainera

euren kontra Iruñean jokatu beharra daukagu (ligandean, hilak 7) eta oso zaila izango da han irabaztea. Dena dela, guz-tiak dira arriskutsuak.

- Zein frontoitan jo-katzen duzue gustora-got?

- Nik nahiago dut Ber-garan jokatzeko, frontoia ezagutzen dudalako eta jendeak ere asko animatzen gaitu. Eibarreko As-telena ere gustatzen zait... baina inportanteena forma aldetik ondo ego-tea da. Jose Marik, berriz, guztietan jokatzeko du ondo, primeran dabil.

- Eta zela ikusten du-zu Jose Mari banakako txapelketan?

- Lasai jokatu du aurtun eta gauza handiak egin ditzake. Sustoren bat emateko kapaz ikusten dut. Beloki eta bera au-kerekin ikusten ditut.

Atletismo promesak

Udal Kirol Zerbitzuaren atletismo eskolak Ordizian jokatuak alebinentzako atletismo frogetan emaitza bikainak lortu zituen astebukaeran. 60 metro hezie-tan Lorea Garzia (Mariaren Lagundia, argazkian 2.a eskumatik) lehena izan zen bere seriean 12.3 seg.rekin, Irati Sasieta (Aranzadi Ikast.) eta Ainize Gomez de Seguraren (Mariaren Lag.) aurretik. Pisu jaurtiketan ere Lorea Garzia lehena izan zen 7.34 metrokokin eta Gipuzkoako Txapelketarako minimoa lortuz. 4x60 metroko errelebotan, Mariaren Lagundia 2. eta Aranzadi Ikastola 5. izan ziren.



T B E R N A

GANBARA

Berezitasunak:
Pintxoak eta
kafea kremarekin

Irala z/g, Tfnoa: 76 55 75

UBI

4P PLAST

HASIERAKO PROMOZIO BEREZIA!!

Orain zure aukeran superleiho isolatzaileak

- PVC - VEKA aleman sistema
- RPT, INESPAL (aluminioa)

☎ 76 40 69



Bergaran ikurriña jaso zuen Udalbatza

1 977ko urtarrilaren 19an Bergarako Udalbatzak, ikurriña ofizialtzat jo eta Udaletxeko balkoian jartzea proposatzen zuen mozioa aztertu zuen. Udalkide guztiek baietza emanik, Jose Luis Elkoro alkateak, zinegotzi zaharrenari utzi zion ikurriña jasotzeko aukera: "Ohore handia litzateke niretzat egun haundi honetan ikurriña jasotzea. Baina ekintzak duen sinbologiagatik eta edukiagatik Udal honetako kiderik zaharrenari, Antonio Irazola alkateordeari, uzten diot nire lekua". Bildutako 6.000 lagunen aurrean, txalo eta "Gora Euskadi"-en artean, jaso zen, arratsaldeko 8ak hamar gutxitan, ikurriña Udal txistulariek "Eusko Abendaren ereserkia" jotzen zuen bitartean.

Harrez gero, hemen agertzen diren hauek ez dute une hunkigarri hura ahaztu eta urtero-urtero bildu ohi dira afari batean, egun hura gogoratzuz.

Hara zeintzu diren ezkerretik eskumara:

Makurtuta: Anton Garitano, Ramon Mendibil, Javier Amenabar eta Juan Mari Otaegi.

Zutik: Ramiro Lopez, Antonio Irazola, Jose Luis Elkoro, Regino Valle, Maria Angeles Manso, Jesus Mari Sebal eta Carlos Soriano. Erretratuan falta dena, Angel Azkarate.

Estepan Plazaola

Argazkia: Antonio Irazola.

AGIRREBEÑA

Oinetakoak
Erropa denda
Lenzeria

Urteaga 5, Tfnoa: 76 18 29

IRUK-BAT
IGELTSERITZA

☎ 76 24 74 20590 SORALUZE
Biltegia eta bulegoak: Zubieta, 24 behea
☎ 76 36 71 20570 BERGARA

ETXALAR

KRUASANTEGIA

Gosariak eta
meriendak

Boni Laskurain, 4 ☎ 76 50 68

ETXEBIZITZA

Pisua alokatzen da Mariaren Lagundiaren parean. ☎ 76 56 13 (gauzez).

Neska bat behar da Donostian pisua konpartitzeko. ☎ 76 19 99.

Garaje bikoitza alokairuan Burdiniaten. ☎ 76 57 69/76 13 23.

Arrizurin garajea salgai. ☎ 74 30 55/ 74 43 19

Jacan etxe bat alokatzen da. ☎ 73 07 60. Be-goña. (gauzez).

Artekalen pisua salgai ☎ 76 55 63. Gauzez.

Garajea salgai Santa Marinan. ☎ 76 32 70.

Garajea salgai Martokuan. Erosoa. ☎ 76 46 95.

Pisu amueblatua alokatzen da Bergara erdian. ☎ 12 12 71.

Garajea salgai Urrats taberna azpian. ☎ 76 57 93.

Pisua salgai Artzamendin muebleekin edo mueble gabe. ☎ 76 40 82 (Getatik aurrera).

Pisua salgai Martokuan. 80 metro karratu. ☎ 76 14 13 (gauzez).

Garajea salgai Torre-kuan. ☎ 76 16 51.

Pisua salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 55 22.

SALDU-EROSI

Peavy 100 watts bi anpli salgai. Biak 100.000 pezetatatan (bat 60.000). ☎ 76 10 34.

Bateria salgai. ☎ 76 47 07 (Richar).

Kotxea salgai. SS-P. 75.000pzta. ☎ 76 53 59.

OPEL CORSA SS-S gorria salgai. Prezio onean. ☎ 76 55 80.

Oinarrizko Heziketa Orokorra, U.B.I., B.B.B. eta Lanbide Heziketako klase partikularrak ematen ditut. ☎ 76 44 34 (Amaia)

SS-4252-P matrikuladun Ford Scort 1.600 kotxea salgai. ☎ 76 50 18.

Skiko Koflach-Valuga botak erosiko nituzke. ☎ 76 05 92 (Jose Angel).

Ileapaindegi eta estetika aparailuak salgai. Egoera onean. ☎ 76 32 12.

Kanowey moto bat salgai (49.9zm3). Egoera onean (90.000 pta.). ☎ 76 12 99.

Etzeko gela bikoitz bateko altzariak salgai. Egoera onean. ☎ 76 18 61.

ZANUSSI garbigailua salgai. ☎ 78 34 16.

Marketari lana duen sarrerako altzaria salgai. ☎ 76 35 50 (gauzez) edota 79 82 10 (egunez).

Garbigailua oparitzen dut. ☎ 76 03 73.

Lau MSX joku salgai. ☎ 76 59 47 (David).

Etxean barruko atea aldatzeko asmotan baldin bazaude ez itzazu bota, gustora hartuko ditut eta. ☎ 76 40 54 (gauzez).

Marketari lana duen sarrerako altzaria salgai. ☎ 76 32 51.

Softwaredun 2.400 BPS modema salgai. Berri-berria. Prezioa interesgarria. ☎ 76 51 62.

Super Mario 3 jokua duen Nintendo bat salgai. ☎ 76 58 93 (Unai).

LANA

AutoCAD, FP2 Informatikan praktketan lan egingo nuke. ☎ 73 33 42.

Emakumezko batek haurrak zaindu eta etzeko lanak egingo lituzke. ☎ 76 36 06 (Marisol).

Etzeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke neska batek ☎ 76 07 26 (Amaia).

Edozein motatako lanak makinaz edo ordenadorez pasatzen ditugu. ☎ 76 17 20 (Laura).

Neska batek etzeko lanak egin edota umeak zainduko lituzke. ☎ 76 60 65.

Hildakoak

Eugenia Etxeberria Erostarbe
urtarrilak 29, 84 urte
Miguel Arkauz Telleria
urtarrilak 31, 76 urte
Salvadora Azkarate Jauregi
otsailak 1, 91 urte
Maria Tapia Susperregi
otsailak 3, 71 urte

Jaiotakoak

Ana Oianguren Garzia
urtarrilak 29
Ane Zabaleta Etxebarria
urtarrilak 30

AUTOPULLMANS ARABA
Autobusak

Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara

ANGIOZAR ☎ 76 55 70

OILAGORRA
Taberna

Barrenkale 21, BERGARA

TEMPRA STADIO




ERAKUSKETA:
Ibargarai 39
BERGARA

TAILERRAK:
Antigua Auzoa
ANTZUOLA

Autoberezi FIAT

ZERBITZU OFIZIALA

93ko ezkongaiak



BIKOTE SARTUARENTZAT ERREGALIAK
93KO EZKONGAIEN LEIHAKETA

ERREGALIAK

SENARGAIAREN JANTZIA
ANDREGAIAREN JANTZIA
ERAZTUNAK ETA ZILARREZKO 13 EZKON DIRU
EZTAI EGUNERAKO CAVA
SUKALDERAKO MAHIA ETA 4 AULKI
EROSKETA TXARTELA
ARGAZKI ERREPORTAIA
PALMA DE MALLORCARA BIDAIA
EROSKETA TXARTELA

ETXEAK

AUZMENDI JOSTUNDEGIA (Donostia)
BAYON (Donostia)
KAREAGA (Eibar)
CODORNIU
IKER (Mondragón)
SOFAS LANDETA (Azpeitia)
FOTOKAI (Donostia)
EROSKI BIDAIAK (Donostia)
GANZARAIN HALTZARIAK (Azkoitia)

ZOZKETA: OTSAILAREN 26an

1994ko Martxoaren 31 baino lehen ezkontzeko asmotan bazara, bete orri hau eta bidal ezazu Otsailaren 26a baino lehen LOIOLAKO HERRI IRRATIA • 93KO EZKONGAIK • 20720 AZPEITIA (GIPUZKOA) helbidera.

SENARGAIA _____ (izen deiturak)
 _____ (helbidea)
 _____ (herria) _____ (telefonoa)
 ANDREGAIA _____ (izen deiturak)
 _____ (helbidea)
 _____ (herria) _____ (telefonoa)
 Ezkontza eguna (gutxi gora behera)

HERRI Irratia



Radio POPULAR
GIPUZKOA